

Tontxu Camposen hizkuntz eredu bakarra eta malgua

EAEko Hezkuntza sailburuak irakas-kuntzan ezarriko den hizkuntz ereduaren sistema berria aurkeztu du. Eredu bakarra eta malgua izango da, euskara hizkuntza nagusizat hartuz. Eredu horren zehaztapenak ondoren egingo dira, alegia, alderdi politikoen artean aurkitu beharko da adostasuna. Esate baterako, alderdi politikoen erabaki beharko dute euskararen eta gaztelaniaren ezarpenaren gutxienekoak zein izango diren, eta baita ere, ebaluazio moduan ezarritako azterketak gainditzen ez dituzten ikasleekin zer gertatuko den.

Ikasleek lortu beharreko helburuak hauek izango dira: Lehen Hezkuntza amaitutakoan B1 maila -Hizkuntzak irakatsi eta ikasteko markoaren arabera-, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitutakoan B2 eta atzerriko hizkuntzei dagokienez,

DBH bukatutakoan B1 maila. Maila horiek lortu dituzten ala ez jakiteko azterketak egingo zaizkie EAEko ikasle guztiei. LH eta DBH amaitu baino lehen ere, tarteko diagnosiak egingo dituzte.

Ikastetxe bakoitza aske izango da ereduaren behar besteko ñabardurekin aplikatzeko. Dena dela, aurreikusia dago euskaraz irakasteko beharrari erantzuteko hizkuntza eskakizuna duten 882 irakasle beharko direla.

Hezkuntza sailburuak adierazi du sistema berria 2008-2009ko ikasturtean jarri nahiko lukeela abian, beti ere, Lehen Hezkuntzako lehenengo mailan, eta beraz, hamar urte beharko dira 16 urtera arteko maila guztietan ezartzeko.

Berria egunkarian egindako elkarrizketan, euskara irakats hizkuntza nagusia izateak zer esan nahi duen zehaztu du Campos sailburuak: "Hainbat gazerentzat eskola da euskararekin harremanetan egoteko aukera bakarra. Horrek esan nahi du eskolak ematen

diola ikasle horri gizarteak ematen ez diona. Horrek esan nahi du euskaraz ikasi eta irakatsi behar direla ikasgai gehienak". Eta Ezkerraldea jarri du adibidetzat: "Argi dago Ezkerraldean euskarak izan behar duela nagusi, nagusi baino nagusiago".

Euskarak gizartean pisu gutxi duen zonaldeetan euskarak eskolan nagusi izan behar duela garbi du sailburuak; baina euskararen gutxienekoa non ezarriko da?: "Politikoen politikaz hitz egin behar dute eta teknikoen gai teknikoek. Nik aditu bati eskatuko diot, helburuak aintzat hartuta, esateko testuinguru, lurralde eta bailara bakoitzean nola jokatu beharko genukeen".

Sistema berriaren proposamen aurkezpenaren zehaztu ez zuen beste kontu bat: hizkuntza maila neurtzeko azterketak ez gaindituz gero zer gertatuko da?: "Nik momentuz planteatzen dudana da beste ikasgaiekin jokatu litzatekeen moduan jokatzea". Alegia, hizkuntzaren ikasgaia gainditu gabe gera litekeela.

Emakumeak

Emakumearen berdintasun eta duintasunaren aldeko bi aldarrikapen izan ziren aurreko astean Euskal Herrian. Batetik, EHNE nekazari elkartearen baitan duela hamasei urte sortutako Gipuzkoako EBELeko emakume baserritarrek bilera orokorra izan zuten. Eta bestetik, 8an, emakumeak kalera irten ziren beren aldarrikapenak erreklamatu eta eguneratzeko. Emakume baserritarrek baserritar izaten jarraitu nahi dutela azpimarratu zuten eta beren lana, duintasuna eta berdintasuna onartua izan dadila, beren eskubide guztiekin, Gizarte Segurantzaren barne, gizonen antzera. Emakumeen mugimenduen eta sindikatuaren eskubide horietan berak erreklamatu zituzten martxoaren zortziko mobilizazioetan. Sistema ekono-

miko-politikoaren salatu zuten, lan ezegonkortasuna eragiten baitu, eta inoiz baino gehiago, lanak emakume aurpegia du. Berdintasunari buruz dihardutenean politikarien alferrikako "berriketak" ere salatu zituzten. Hitzetatik ekintzetara pasatzea exijitu zuten. Horretarako, duintasuna errespetatzeko eta berdintasuna ezartzeko, neurri politiko eta sozial eraginkorrak behar dira; emakumeentzako ere lan duina sortzeko, lan bera duten gizonen soldata berdintsuekin. Gizartean emakumeen marjinazioa eta pobrezia errotik kentzeko. Eguneroko politika eraginkorrak behar dira horretarako. Ardura hori, batez ere, politikariei eta Gobernuari dagokie.

Juan Mari Arregi

BAHEA

Patxi Salaberri euskaltzainak Veleiako aurkikuntzari buruz *Berria*ri esanak: "Esaten dute garbi baino garbiago dagoela idazkunak, eta zeramika zatiak, garai hartakoak direla. Orduan, zer egin dezakegu filologoen? Fidatu. Arazoa da hasieran atera zirenak baino askoz ere gehiago daudela. Eta oso gauza arraroak ikusten direla (...) Agertzen dira garai hartan agertu behar ez luketen gauzak. Guk dakigunaren arabera, beti ere. Beste gauza bat da esatea: dakiguna egokitu behar dugu hemen agertu denaren arabera (...) Arazoa da Veleiakoak daudela, baina baita Akitaniakoak eta Lergakoak ere. Eta horiek ez dira bat heldu, hizkuntzaren aldetik. Lergakoan aspirazioa agertzen da, *umme sahar*; Akitanian ere bai. Eta badakigu aspirazioa, Nafarroan, Araban baino askoz lehenago galdu zela, eta Veleiako horietan aspiraziorik ez dago. (...) Ni hor nago. Alde batetik, sinetsi nahi diet, baina gero... ikusten dut pixka bat kontraesana. Garai haietarako euskararen inguruan dakigunaren eta orain agertu denaren arteko tarte handiegia dago".

Hauteskundeetara aurkezteko formularen bila

HAUTESKUNDEETARA aurkezteko Batasunak biolentzia arbuatzea eskatzen ari da Espainiako Gobernuak azken boladan. Akaso ñabardura kontuetan hasita gaude dagoeneko, baina gaitzespenak eta arbuatzeak ez dute esanahi bera. Denak adierazten du oraingoan Batasunak ahalgin berezi bat egingo duela ariketa semantikoekin. Egia esan, ezker abertzalearen historian tankera horretako ariketa ugari egin dira, hori bai, beti ere ETaren biolentzia gaitzetsi barik.

Komando autonomoen Enrique Casas senatari sozialistaren hilketa salatu zuen HBk; ETaren Hiperkorreko atentatuarekiko ezadostasuna ere erakutsi zuen; Portugaleten Mendeku izeneko talde autonomo batek PSOEko egoitza baten aurka koktelekin egindako eraso batean bi hildako izan zirenean ere berdin; eta beste askotan ere bai. Azken urtebete honetan ere, kale eraso zenbaitekiko –gutxitan eta aho txikiarekin, hori bai– desadostasuna agertu du. Alegia, ETarekiko gaitzespen zuzena erabili barik ere, izan daitezke biolentziaren



JON HERNAEZ / ARGAZKI PRESS

Milaka pertsonak erakutsi zieten sostengua 18/98 ko auzipetuei. Uda hasierarako izan daiteke epaia, eta absoluzioak espero dira, baina zigorrak ere bai.

arbuatze horren inguruan ariketak egiteko moduak. Jakina, horretarako Espainiako Gobernuaren borondatea eta malgutasuna behar da, bestela 'gaitzespen' hitz madarikatuaren erabilera bera ere gutxi litzateke eta. Duela bi aste, martxoaren 2an, PPK ezik gainerako alderdi guztiek "biolentzia guztien amaiera" eskatzen zuen ebazpena onartu zuten Eusko Legebiltzarrean, baina gainera biolentzia hori zenbait berbekin ere zehaztu egiten zen "biolentzia, xantaia eta estortsioaren amaiera", alegia. PSEk bikain baloratu zuen EHAK-k ebazpenarekin bat

egin izana. Iñaki de Juanaren Euskal Herriratzak eta Batasunaren Anaitasuneko ekitaldiak ia oharkabean pasarazi zuten albistea, eta norberak duen zalantza da ea De Juanarenagatik izan zen edo benetan oharkabean pasarazi nahi zen.

NAFARROAKO lurraldetasuna eta Batasuna hauteskundeetan ez egotea izango dira PPK datozen asteetan Jose Luis Rodriguez Zapateroren aurka erabiliko dituen mortero andanak. Eta Nafarroakoari ekiteko, lurraldetik bertatik dena prest dute UPNk eta CDNk larunbateko manifestazioarekin. Hauteskunde usaina agerikoa da, eta erregionalista eskuindarren beldurra ere bai. Batasunak parte hartuz gero, badakite ez luketela gehiago osorik, eta Gobernuak gaitzeko aukera handia luketela. Argitaratu gabeko inkestek matematikoki oso posible egiten dute UPN oposizioa bidaltzearena, baina eskuinak eginahalak eta bi egingo ditu *baskoen mehatxua*-rena haizatzearen. Eta argi, ohi bezala, mobilizatzea lortzen den abstentzioaren multzo horrek erabakiko du.



Udako Euskal Unibertsitatea



Hizkuntza Politika Gizartean

2007ko Martxoaren 23an
Kursaal Elkargunea, Donostia

Erakunde Publikoak

Hezkuntza

Hedabideak

Gizarte Eragileak



MATRIKULA ZABALIK

www.ueu.org